

DEVONEKO KONDERRIA

TUTORETZA: LAU IKASLE - IRAKASLE BAT
7 urte baino gehiago ikastaro hau antolatzen!

“IKASTARO DESBERDINA, ULERMENA, AHOZKO ADIERAZMENA ETA PARTE HARTZERIK HANDIENA SUSTATUAZ”

GOMENDATUTAKO ADINAK: 14-17 urte.

DATAK: uztailearen 3tik 24ra.

IRAUPENA: 3 aste.

IRTEERAK: Bilbotik.

Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak.

DEVONEKO KONDERRIA, Ingalaterra hego-mendebaldean dago eta Ingalaterrako konderririk erakargarrienetakoa da. Itsasoa, mendiak eta herri txikiak... horrelako herri txiki batean izaten da ikastaroa, Newton, Abboten, Teignmouthen...

IKASTAROAK, JARDUERAK ETA IBILALDIAK

.- Antzeko maila duten lau ikasle irakaslearen etxera joango dira ingeleseko klaseetara. Izena ematen dutenean ikasleek test bat egingo dute maila jakiteko, eta maila horren arabera taldekatuko dira ikasleak.

Nazionalitate berdineko ikasleak egongo dira talde hauetan. Klaseetan eta jardueretan erabiliko den hizkuntza bakarria ingeleza izango da.

.- 15 ordu astean eta ikasle kopuru murrirtza, ikasleen aprobetxamendua handia izan arte. Irakasle bakoitzak bere programa egiten du, ikasleen xedeetara egokituaz.

.- Klaseak batez ere praktikoak izango dira, gaurkotasuneko eta Britainia Handiko bizitzako gaiak landuko dira, komunikabideak, publizitatea, kirolak, erakunde politikoak, monarkia... eta gaurkotasuna duten beste hainbat gai ikasleek beren hiztegia hazi dezaten hainbat gaitan, herrialdearen errealitatea sakon ezagutzeaz gain.

.- Astean hiru arratsaldetan jarduerak irakaslearekin! Gainerako jarduerak: intereseko tokietara ikustaldiak, egun erdiko ibilaldiak eta egun osoko beste bat astero. Plymouth, Exeterreko katedrala, Buckfast Abbey, Dartmoor National Park, Brixham eta Quay West bezalako herrixka arrantzaleak... ikusiko dira ibilaldi horietan.

OSTATATZEA

Eskolak aukeratutako **familietan**, mantenu osoan. Ikaslerik gehienak etxetik eskolara oinez joateko moduko distantzian bizi izaten dira.

